



Honekin batera bidaltzen dut beheko gaia jorratzen duen araugintzako ebaluazio txostena, hala jasotzen baitu 6.4 artikuluan (uztailak 3ko 3/2013 Foru Arauaren bidez aldatua) Gipuzkoako lurralde historikoaren erakunde, gobernu eta administrazioari buruzko uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauak:

3/2022 Foru Dekretu-Araua, azaroaren 8koa, Gipuzkoako toki entitateek aurrekontuen egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan 2023an aplikatu beharreko arau fiskalak eteteari buruzkoa.

De conformidad con lo previsto en el artículo 6. 4 de la Norma Foral 6/2005 de 12 de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa, modificado por Norma Foral 3/2013 de 3 de julio, se adjunta informe de evaluación normativa referido a:

Decreto Foral-Norma 3/2022, de 8 de noviembre, sobre la suspensión de las reglas fiscales a aplicar por las entidades locales de Gipuzkoa en 2023 en materia de estabilidad presupuestaria y sostenibilidad financiera.

**OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUKO FORU DIPUTATUA
EL DIPUTADO FORAL DEL DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS**



Araugintzako ebaluazio txostena

3/2022 Foru Dekretu-Araua, azaroaren 8koa, Gipuzkoako toki entitateek aurrekontuen egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan 2023an aplikatu beharreko arau fiskalak eteteari buruzkoa

Sarrera

Covid-19ak sortutako pandemiak aurrekaririk gabeko astindu ekonomikoa eragin zuen, eta agertoki ekonomikoa goitik behera aldatu zuen.

Ondorioz, Europako Batzordeak 2020an Egonkortasun eta Hazkunde Itunaren babes klausula orokorra aplikatzea erabaki zuen, 2021 eta 2022ko ekitaldietarako luzatu zuen erabaki hura. 2022ko maiatzaren 23an jakinarazi zuen 2023rako ere luzatuko zela.

Informe de evaluación normativa

Decreto Foral-Norma 3/2022, de 8 de noviembre, sobre la suspensión de las reglas fiscales a aplicar por las entidades locales de Gipuzkoa en 2023 en materia de estabilidad presupuestaria y sostenibilidad financiera

Introducción

La pandemia ocasionada por la covid-19 provocó un shock económico sin precedentes, y cambió por completo el escenario económico.

En consecuencia, la Comisión Europea decidió aplicar la cláusula general de salvaguarda del Pacto de Estabilidad y Crecimiento en 2020, la prorrogó para los ejercicios 2021 y 2022. El 23 de mayo de 2022 comunicó su extensión para el año 2023.



Europako Batzordeak uste zuen honako arrazoi hauek justifikatzen zutela luzapena: Ukrainako gerraren testuinguruan ziurgabetasuna handitzeak eta aurreikuspen ekonomikoak apaltzeko arriskuak, energiaren prezioen aurrekaririk gabeko igoerek eta hornidura-katearen etengabeko asaldurek.

Ildo beretik, Ministroen Kontseiluak 2022ko uztailaren 26an erabaki zuen 2023rako zerga-arauak etenda mantentzea. Diputatuen Kongresuak, berriz, 2022ko irailaren 22an, akordio hori babestu zuen, hori justifikatzen zuten salbuespen-baldintzak mantentzen zirela iritzita.

Testuinguru horretan, 2022ko irailaren 28an, Estatuaren Administrazioak eta Eusko Jaurlaritzak adostu zuten zeintzuk izango diren defizitaren eta zorraren erreferentzia tasak 2023rako, bai Eusko Jaurlaritzarentzat bai foru aldundientzat.

Hori oinarri hartuta, Finantza Publikoen Euskal Kontseiluak, 2022ko urriaren 14an egindako bileran, foru aldundien aurrekontu egonkortasuneko helburuak adostu zituen 2023rako.

La Comisión Europea consideró que dicha extensión se justificaba por el aumento de la incertidumbre y los fuertes riesgos a la baja para las perspectivas económicas en el contexto de la guerra en Ucrania, los aumentos sin precedentes de los precios de la energía y las continuas perturbaciones de la cadena de suministro

En la misma línea, el Consejo de Ministros acordó, con fecha 26 de julio de 2022, mantener la suspensión de las reglas fiscales para 2023. El Congreso de los Diputados, a su vez, con fecha 22 de septiembre de 2022, respaldó dicho acuerdo por entender que se mantenían las condiciones de excepcionalidad que lo justificaban.

En este contexto, con fecha 28 de septiembre de 2022, la Administración del Estado y el Gobierno Vasco acordaron las tasas de referencia de déficit y deuda para 2023, tanto para el Gobierno Vasco como para las diputaciones forales.

Sobre dicha base, el Consejo Vasco de Finanzas Públicas, en su reunión de fecha 14 de octubre de 2022 acordó los objetivos de estabilidad presupuestaria de las diputaciones forales para 2023.



Ekonomia Itunaren baliabideak banatzeko barne ereduaren ezaugarria arrisku partekatuaren printzipioa da: hiru erakunde mailek parte hartzen dute baliabideetan izandako irabazi edo galeretan. Eta diru-sarreraren beherakaden kasuan, horiek ezin dira konpentsatu beste administrazio batzuen transferentzia arrunten bidez. Beraz, litekeena da zorpetzera jo behar izatea.

Era berean, udalek zerga itunduetan duten partaidetzaren ezaugarria arrisku partekatuaren printzipioa da, udalek ere parte hartzen baitute Ekonomia Ituneko baliabideetan izandako irabazietan zein galeretan.

Lehen aipatutako araudiak foru aldundien esku finantza tutoretzaren eskumena utzi izanak ahalmena ematen die tokiko entitateen zorpetze araubidea ezartzeko

Horrela, aztertutako Foru Dekretu-Arauak neurri hauek onartu zituen:

- Ezohiko izaeraz, eta 2023rako bakarrik, eten egin ziren Gipuzkoako toki erakundeen arau

El modelo interno de distribución de recursos del Concierto Económico se caracteriza por el principio de riesgo compartido: los tres niveles institucionales participan de las ganancias o pérdidas producidas en los recursos. Y en el caso, de caídas de ingresos, esas no son compensables mediante transferencias ordinarias de otras administraciones. Por lo que pueden necesitar acudir al endeudamiento.

De forma similar, la participación de los ayuntamientos en los tributos concertados también se caracteriza por el principio de riesgo compartido, dado que los ayuntamientos también participan de las ganancias o pérdidas producidas en los recursos del Concierto Económico.

La competencia de tutela financiera que, en base a la normativa antes citada, ostentan las diputaciones forales les habilita a regular el régimen de endeudamiento de las entidades locales en su ámbito territorial.

Así, el Decreto Foral-Norma analizado aprobó las siguientes medidas:

- Con carácter extraordinario y efectos exclusivos para 2023, se suspendieron las



fiskalak. Horrek esan nahi zuen aurrekontu egonkortasunaren eta zor publikoaren helburuak eraginik gabe uztea, eta gastu araua ez aplikatzea urte horretan.

- Arau fiskalak eteteak berekin zekarren, halaber, eten egiten zirela sarrera handiagoak eta diruzaintzako gerakina zorra murriztera bideratzeko eskakizuna. Toki erakundeek kreditu aldaketak finantzatzeko erabili ahal izango dituzte beren diruzaintzako gerakinak.
- Arau fiskal etete horrek ez zien eragiten haiekin zuzenean lotuta ez dauden obligazioei, eta jarraipen eta gainbegiratze neurriei eusten jarraitu behar zen. Bereziki, zorpetze eragiketak baimentzeko prozedura mantentzen da, baita hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epeari dagozkion obligazioak ere, eta horiek betetzen direla egiaztatatu beharko da.
- Era berean, araututako defizit helburuak gaindituz gero, toki entitateak behartuta egongo dira plan ekonomiko-finantzario bat egin eta onartzera, plan hori kudeaketa

reglas fiscales de las entidades locales de Gipuzkoa. Eso implicaba dejar sin efecto los objetivos de estabilidad presupuestaria y de deuda pública y no aplicar la regla de gasto en el citado año.

- La suspensión de las reglas fiscales conllevaba asimismo la suspensión de la exigencia de destinar los mayores ingresos y el remanente de tesorería a la reducción de deuda. Las entidades locales pueden utilizar sus remanentes de tesorería para la financiación de modificaciones de crédito.
- La suspensión no afectaba al cumplimiento de las obligaciones no vinculadas directamente con las reglas fiscales, y debían mantenerse las medidas de seguimiento y supervisión. En particular, se mantiene el procedimiento de autorización de operaciones de endeudamiento, así como las obligaciones relativas al periodo medio de pago a proveedores, y el control de su cumplimiento.
- Asimismo, en caso de superar los objetivos de déficit regulados, las entidades locales seguirán estando obligadas a elaborar y aprobar un plan



tresna eta epe luzerako planifikazio tresna izan dadin, baina haren betetze mailagatik neurri gehigarriak hartzeko obligaziorik izan gabe.

- Mankomunitateak, berriz, aurrekontua defizitarekin likidatzen dutenean bakarrik egongo dira behartuta aipatutako plan-ekonomiko-finantzarioa egin eta onartzera.
- Gipuzkoako Foru Aldundiak udalei laga zien berari esleitutako defizit helburuaren %40. Ondorioz, udalenzako defizit globaleko 2023rako helburua $-0,0134$ koa da, EAEko BPGaren ehunekotan. Udalen banakako defiziteko helburua zehazten da lehen aipatutako defizit globala Udalak Finantzatzeko Foru Funtzaren kuoten proportzio berean banatuz.
- Mankomunitateentzako, 2023rako superabit globaleko helburua $0,1$ ean ezartzen da, Gipuzkoako BPGaren ehunekotan.
- económico-financiero, con objeto de que dicho plan constituya una herramienta de gestión y planificación a largo plazo, pero sin que de su grado de cumplimiento se derive la obligación de adoptar medidas adicionales.
- Las mancomunidades, por su parte, solo estarán obligadas a elaborar y aprobar el citado plan económico-financiero en el caso de liquidar con déficit el presupuesto.
- La Diputación Foral de Gipuzkoa cedió a los ayuntamientos el 40% del objetivo de déficit a ella asignado. En consecuencia, para 2023 el objetivo de déficit global para ayuntamientos es del $-0,0134\%$, en porcentaje sobre el PIB de la CAPV. El objetivo de déficit individual de los ayuntamientos se determina distribuyendo el déficit global anteriormente señalado en la misma proporción que las cuotas del Fondo Foral de Financiación Municipal.
- Para las mancomunidades, el objetivo de superávit global para 2023 se establece en el $0,1\%$, en porcentaje sobre el PIB de Gipuzkoa.



- Mankomunitateentzako, 2023rako banakako superabit helburua sarrera arrunten %2,16n ezartzen da.
- Para las mancomunidades, el objetivo de superávit individual para 2023 se establece en el 2,16% de los ingresos corrientes.
- Gipuzkoako toki erakundeen epe luzeko zorpetzea koherentea da ekitaldi bakoitzerako onartutako defizit helburuarekin. Arau fiskalak etenda gelditu ondoren, artikulua honetan ezarritako defizit eta zor helburuak erreferentzia tasatzat hartuko dira.
- El endeudamiento a largo plazo de las entidades locales de Gipuzkoa es coherente con el objetivo de déficit aprobado para cada ejercicio. Tras la suspensión de las reglas fiscales, los objetivos de déficit y deuda fijados en este artículo tendrán la consideración de tasas de referencia.

Sortutako ondorioak

2023ko aurrekontuaren datuekin, 17 udalek defizita aurreikusi dute, eta horietatik 15ek erreferentziako tasa baino defizit handiagoa izan dute.

Proposatutako helburuen eta lortutako helburuen arteko lotura

Aztertutako foru dekretu-araua modu eraginkorrean bete da, eta ezarritako helburuak arazorik gabe edo ustekabe berezirik gabe bete dira.

Efectos producidos

Con datos del presupuesto de 2023, 17 ayuntamientos han previsto un déficit, de los cuales 15 han presentado un déficit superior a la tasa de referencia.

Correspondencia entre objetivos propuestos y objetivos alcanzados

El decreto foral-norma analizado se ha puesto en cumplimiento de manera efectiva y ha cumplido con los objetivos fijados sin problemas en su aplicación o contratiempos especiales.



Araugintza garatzeko beharrak

Ez da inolako araugintza garapenik egin behar izan.

Arauaren aplikazioagatik judizializatutako kasuak

Orain arte ez da judizializaziorik egin bere aplikazioan.

Laburbilduz

Aztertutako foru dekretu-araua eraginkortasunez bete da, ez da inolako arazorik izan hura aplikatzean, ez du ezbehar berezirik izan, eta orain arte ez da judizializaziorik egin haren aplikazioan.

Necesidades de desarrollo normativo

No ha habido necesidad de realizar ningún tipo de desarrollo normativo.

Casos de judicialización por aplicación de la norma

Hasta la fecha no se ha producido ningún caso de judicialización en su aplicación.

En resumen

El decreto foral-norma analizado se ha puesto en cumplimiento de manera efectiva, sin ningún tipo de problemas en su aplicación, sin ningún contratiempo en especial, y hasta la fecha no se ha producido ningún caso de judicialización en su aplicación.